



ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2022 Egonkortzeko salbuespeneko prozesua (merezimendu-lehiaketa)

HAUTATUTAKO EK EGIN BEHARREKOAK: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK, LEKUALDATZE-LEHIAKETA

1) DOKUMENTUAK AURKEZTU

1.1. Epea: 2023ko ekainaren 30etik uztailaren 19ra arte, biak barne (hogein egun naturaleko epea, izangai hautatuen behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara eman – 2023ko ekainaren 29an- eta hurrengo egunetik kontatzen hasita)

1.2. On-line aurkeztu:

Dokumentuak honako Interneteko helbide honetan aurkeztuko dira:

Sektore bereziak kidegoa:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Salbuespeneko egonkortze-prozesua - LHko sektore berezietako irakasle espezialistak» – «Hautatuek dokumentazioa aurkezteko»

Gainontzeko kidegoak:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Salbuespeneko egonkortze-prozesua» – «Hautatuek dokumentazioa aurkezteko»

1.3. Aurkeztu beharreko dokumentuak: Deialdiaren 8. oinarrian adierazten direnak, “*Hautatuek agiriak entregatzeko*” izeneko ereduarekin batera (Interneteko helbidean eskuragarri). Dokumentu hau eskuz edo digitalki sina daiteke.

Dokumentazio jakin bat aurkezteari buruzko zehaztapen batzuk:

- **Kidegoan sartzeko eskatutako tituluak, NANA eta sexu-delituei buruzko ziurtagiria** ez dira aurkeztu beharko, baldin eta kontsultatzeko baimena ematen bada. Tituluari dagokionez, ez da aurkeztu beharko, ezta baimenik eman ere, hautaketa-prozesu honetan aurkeztu bada. Baimena Interneteko helbidean eman ahal izango da, dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean.
- **Zinpeko aitorenaren eredia** eskuragarri dago Interneteko helbidean, dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean.



- Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa **irakaskuntza-esperientziaren** bidez egiaztatzeari dagokionez, ez da dokumentaziorik aurkeztu beharko, baldin eta ikastetxe publikoetan eta pribatuetan emandako zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude (kontsultatu hemen: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabilitzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Eremu pertsonala» – «Nire datu laboralak» – «Zerbitzu-orria». Langileen Erregistroan jasota ez badago, deialdiaren I. eranskineko I. atalean adierazitako egiaztatgiriak aurkeztu beharko dira.

1.4. Ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiririk aurkezten ez dutenek, edo agiri horien azterketatik deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzetariko baten jabe ez direla ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskabidean faltsukeria egin izanagatik merezi dezaketen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

1.5. Egonokortzeko salbuespenezko prozesu honetan espezialitate eta kidego bat aukeratu behar duten pertsonak (Hezkuntza sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren 7.5 oinarria)

Epea aukeratzeko: 5 egun balioduneko epea, hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aukera adierazi behar da «*Hautatuek agiriak entregatzeko*» ereduiko «Oharrak» atalean.

2) LEKUALDATZE-LEHIAKETAN PARTE-HARTZEA

Hautatuek **lanpostu-hornikuntzarako deituko diren hurrengo lehiaketetan parte hartu beharko dute**, Hezkuntza Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeren batean eta hautatuak izan diren espezialitatean.

Beraz, parte hartu beharko dute izango den hurrengo lekualdatze-lehiaketan (**2023ko azken hiruhilabetekoan izango da**). Gomendatzen da lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskabidea betetzea ahal diren eskaera kopuru guztiekin.

Eskatutako ikastetxeetan destinorik ez badute lortzen, ofizioz eman ahal izango zaie destinoa, bertan lanpostu hutsik badago, 2023/2024 ikasturtean zerbitzuak eman dituzten lurralde historikoan; salbu eta lekualdatze-lehiaketaren eskabidean bertan ikasturte horretan zerbitzuak eman zituzten lurraldeaz bestelako lurralde historikoa/k adierazten bada/badira.

Destinoak esleitzeko, merezimenduen baremoan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko ekainaren 29an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA